



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Barkaiztegi.

Auzoa, udalerria: Amara., Donostia.

Dolarearen kokapena: Baserriaren barnean, lehen solairuan.

Jabea: Joxe Mari Irizar.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Traunaldia: Duela 10 urte arte martxan izan dute.

Zenbait datu:

Egungo erabilera: Bere horretan dago. Oholezko gainazal bat jarri dute askaren kantaleretako goiko ertzaren mailan, ardatzen artetik ibili eta espazioa ez alperrik galtzeko.

Kontserbazio egoera: Ona. Nahi denean martxan jarri daiteke.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Dolare-prentsa:

Askaren erdian zutitutako burdinazko bi ardatz hariztatu ditu. Motore batek mugitzen du uhal polea eta engranaje osatutako mekanismoa, eta ondorioz urkaren funtzioa duen egiturak ardatzean gora eta behera egiten du, bi abiaduratan: azkarra eta motela. Ardatz bakoitzaren engranajeak estaltzen dituen tapan ageri denez, Donostiako San Frantzisko kaleko tailerrean egin ziren, "Constructores Lasa S.L. San Sebastian" irakur daiteke-eta. Hormigoizko aska du, baina momentu honetan zurezko oholez estalia dago kantaleren goiko ertzaren parean. Ardatzak eta makineriaren zatia besterik ezin da ikusi, ondorioz. Behe solairuan upelategia zegoen garai batean.

Dolarearen osagarriak:

- Matxaka bere motorrarekin.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.

Argazkiak: 38.01, 38.02, 38.03.

GAKO-HITZAK

Trakzio mekanikoa, matxaka, Donostia.

OHARRAK

- Tolareaz gain sagardogintza jarduerarekin loturiko hainbat tresna eta objektu daude, esaterako, erakusketetarako tolare eramangarria, zurezko hortzak dituen matxaka eta garlia edo gurdi-barrika.
- Sagardoa egiteko tolare pneumatiko modernoa dute.

GALDETEGIA

Informatzailea: Joxe Mari Irizar.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabi

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 26a